

**Nik, JESUS M<sup>a</sup> MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIAZTATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, **2026ko maiatzaren 28an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**“3.- Norgehiagoka arau bidezko diru laguntzak, 2026: A eta B Lerroko ebazpen-proposamena. 2026ZDK00008**

Alkatearen 2026ko maiatzaren 26ko proposamenak honela dio:

“German Meabebasterretxea jaunak (Udal Kultur Teknikariak eta batzordeko idazkariak) maiatzaren 15ean egindako txostenean (CSV zkia: ESKUa48d996d-5a69-492b-98b7-c7af117c55ab) honako proposamena egin du:

Espediente zk.:	2026ZDK00008
Interesduna:	OÑATIKO UDALA
Gaia:	Norgehiagoka arau bidez banaturiko diru laguntzak, 2026.
Sarrera erregistroa:	

**Xedea:**

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraituta, diru laguntza deialdiaren instruktore gisa, 2026ko diru laguntza deialdiaren baitan jaso diren eskaerak aztertu eta dagokion laguntza proposamena egitea.

**Araudi aplikagarria:**

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.  
887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.  
Oñatiko Udalak emandako diru laguntzak kudeatzeko ordenantza orokorra (OB 2009/01/29)

**Gertakariak:**

Lehenengoa.-2026eko otsailak , dataz, egindako Kultura batzordean Oñatiko kultur elkarte zein norbanakoek gauzatzen dituzten programa eta sormen lanak, norgehiagoka prozesura bidez, diruz laguntzeko 2026eko deialdiaren edukia eta irekiera onartu zen.

Bigarrena.-Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen: 2026ko martxoaren 9ko GAO argitara emanda (45zenb).

Hirugarrena.-Interesdunek hilabeteko epea izan dute oinarrietan zehazturiko dokumentazioa aurkezteko: martxoaren 10etik apirilaren 10era (biak barne).

Laugarrena.-Interesdunek eskaera deialdian zehazturiko epe barruan gauzatu dute.

Bosgarrena.- Kultura Saileko teknikariak, diru laguntzen oinarri arautzaileak aintzakotzat hartuta, interesdunek aurkezturiko dokumentazioa aztertu du.

### **Gertakarien balorazioa eta proposamena:**

Lehenengoa.- Izapidea: aurre-ebaluazioa.

Izapidetze fasea hasi da kultura Sailak egin duen interesdun bakoitzaren eskaera bakoitzaren aurre-ebaluazioaz; hau da, eskatzaile bakoitzak onuradun izaera eskuratzeko oinarrietan ezarririk dauden baldintza guztiak betetzen dituela frogatu eta aurkezturiko dokumentazioa egiaztatu ondoren.

Araudi aplikagarria

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- Oñatiko Udalak emandako diru laguntzak kudeatzeko ordenantza orokorra (OB 2009/01/29)

Bigarrena.- Oinarri espezifikoetan jasotako baldintza zein puntuazio-irizpideak kontuan hartuta, aurre balorazioa egin da eta 2026ko maiatzak 12an eginiko batzordearen azterketara jarri da txostena.

Hirugarrena.- Interesdunen datuak zuzenean kontsultatzeko in baimena aintzakotzat hartuta, Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko administrazioen Interoperabilitate eta Segurtasun Nodoaren bidez, diru laguntzaren izapidetze administratiborako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egin ditu , horretarako beste administrazio publiko batzuetatik dagokion informazioa eskuratuz.

Zehazki honako zerbitzu hauek kontsultatu dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izateari buruzko kontsulta

Nisae Kontsultaren arabera, jarraian zerrendatzen diren interesdunek, diru laguntza emateko eskatzen diren baldintzaren bat egiaztatu behar dutela ageri da:

**A LERROA**

<b>Interesduna</b>	<b>Baldintza</b>
G75156307 Zizenkatzaileak	Zerga betebeharrak (...)
G75007138 OMT	Zerga betebeharrak (...)
G75144972 Txinparta Bertso Eskola	Zerga betebeharrak (...)
G75006999 Lizargarate	Zerga betebeharrak (...)
G72766991 Aeequs	Zerga betebeharrak (...)
G202708996 OGA	Zerga betebeharrak (...)
G75226100 Ganbara Kantu Eskola	Zerga betebeharrak (...)
G75186395 Artixa	Zerga betebeharrak (...)
G75226100 Hots Abesbatza	Zerga betebeharrak (...)

**B LERROA:**

<b>Interesduna</b>	<b>Baldintza</b>
Ganbara Kantu Eskola	Zerga betebeharrak(...)
OGA	Zerga betebeharrak(...)
Burrunba Faktoria Kultur Elkartea	Zerga betebeharrak(...)
Lizargarate Oñatiko Trikitizale Elkartea	Zerga betebeharrak(...)
Hots Abesbatza	Zerga betebeharrak(...)

Baldintza hauek eguneratu eta eguneratzea egiaztatzen duen dokumentazioa (zerga obligazioak betetzen direnaren agiria) aurkeztu beharko da, ezarritako epeetan eta baldintzetan..

Epeak eta baldintzak: administrazio prozeduraren baitan, zuzenketa-izapidea irekitzen zaie taulan agertzen diren interesdunei. Horretarako, interesdunek **(10) hamar eguneko epea izango dute, jakinarazpen hau argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Eskaria, erregistro elektronikoz egin beharko da.**

**Halaber, jakinarazten da, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak prozeduraren izapidetzearekin jarraitzeko ezintasuna ekar dezakeela.**

Laugarrena.- Oinarri arautzaileen arabera, ONURADUN baldintzak betetzen dituztelako, A lerroko eta B lerroko diru laguntzen zenbatekoaren banaketaren behin behineko proposamen taula honako hau da:



**A LERROA: Kultur Programak.**

<b>Onuraduna</b>	<b>Diru laguntza 2026</b>	<b>60%</b>	<b>40%</b>
G71221592 Nabarralde	3.710,00 €	2.226,00 €	1.484,00 €
G202465688 Oñati Abesbatza	4.383,40 €	2.630,04 €	1.753,36 €
G02868065 DAP	2.800,00 €	1.680,00 €	1.120,00 €
OLR	2.177,90 €	1.306,74 €	871,16 €
G75122713 Oñatz Dantza taldea	11.550,00 €	6.930,00 €	4.620,00 €
G20888855 Arantzazuko Adiskideak	2.056,90 €	1.234,14 €	822,76 €
G75182998 Algaraz	4.234,80 €	2.540,88 €	1.693,92 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>30.913€€</b>	<b>18.547,80 €</b>	<b>12.365,20€</b>

**B LERROA: Sormen proiektuak.**

<b>Onuraduna</b>	<b>Diruz lagunduko den lana</b>	<b>Diru laguntza 2026</b>	<b>60%</b>	<b>40%</b>
Santiago Mendiola Ayastuy	Oñatiri buruzko argazki liburua	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Ospel taldea	Disko grabaketa eta argitaratzea	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
Felipe Uriarte	"Marmotarena" ipuin ilustratua	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
Hiru Handiak	"Hamaika arrazoi" disko grabaketa	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
Lukene Igartua Egaña	"Erraldoiena" haur liburua	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Lukene Igartua Egaña	"Zapaburuena" haur liburua	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Karmelo Alberdi Onraitia	Disko grabaketa	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Algaraz Ikuskizun Elkartea	Diskoa: Potx eta Lotx itsasontzian	1.658,46 €	995,08 €	663,38 €
Mila Modu taldea	Disko grabaketa	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>12.087,10 €</b>	<b>7.252,84 €</b>	<b>4.834,26 €</b>

Bosgarrena.- Honekin batera, deialdian ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela guztira 99.330 euroko gastua udal aurrekontuen "1.0800.480.334.00.01.2026 (355) " diru ataletik eta bere lotespen mailatik ordainduko dena, ondorengo eran:

A lerroa: Kultur programak eta proiektuak finantzatzeko diru laguntzak (guztira lerro honetarako 80.850 euroko gastua baimentzen da).

B lerroa: kultur sormen lanak finantzatzeko diru laguntzak (guztira lerro honetarako 18.480 euroko gastua baimentzen da).

Seigarrena.- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraituta, diru laguntza deialdiaren instruktore gisa, egindako txostena eta laguntza proposamena kultura batzordera bideratzea, behin-behineko esleipen-proposamena egin dezan.

### **Ebazpen-proposamena:**

Gaia aztertu ondoren, kultura batzordeak, aho batez eskatzen dio Organo Eskumendunari:

Lehenengoa.- Oinarri arautzaileen arabera, onuradun baldintzak betetzen dituztelako, A lerroko eta B lerroko diru laguntzak onartzea (ikus txostenari atxikitzen den taula), erabakiaren batera %60 ordainduz eta %40a jaso ahal izateko epe barruan (azaroak 20, ostirala) dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dutela adieraziz,

Bigarrena.- Interesdunei (ikus txostenari atxikitzen zaion taula) beharrezko dokumentazioa eguneratu eta aurkezteko, administrazio izapidea irekitzea, onartzea. Horretarako, (10) hamar eguneko epea irekiko da, jakinarazpen hau argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.- Hamar eguneko epea pasa ondoren, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraituta, kultura Sailak diru laguntza deialdiaren instruktore gisa, eskariak aztertu, eta egindako txostena eta behin-betiko diru laguntza proposamena landuko du, dagokion Organo eskumendunak, diru laguntzak banatzeko behin-betiko esleipen-proposamena egin eta onartu dezan.

Laugarrena.- Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du. Jakinarazpena egiaztat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita. Interesdunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Azaldutakoagatik, eta kultura batzordeak aldeko irizpena eman ondoren; nik, Iزارo Elorza Arregui, Alkateak, Tokiko Gobernu batzordeari honako hau proposatzen diot:**

**Lehenengoa.** Oinarri arautzaileen arabera, ONURADUN baldintzak betetzen dituztelako, A lerroko eta B lerroko honako diru laguntzak onartzea, erabakiaren batera %60 ordainduz eta %40a jaso ahal izateko epe barruan dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dutela adieraziz.

Zuriketak aurkezteko azken eguna: azaroak 20, ostirala.

A LERROA: Kultur Programak.

Onuraduna	Diru laguntza 2026	60%	40%
G71221592 Nabarralde	3.710,00 €	2.226,00 €	1.484,00 €
G202465688 Oñati Abesbatza	4.383,40 €	2.630,04 €	1.753,36 €
G02868065 DAP	2.800,00 €	1.680,00 €	1.120,00 €
OLR	2.177,90 €	1.306,74 €	871,16 €
G75122713 Oñatz Dantza taldea	11.550,00 €	6.930,00 €	4.620,00 €
G20888855 Arantzazuko Adiskideak	2.056,90 €	1.234,14 €	822,76 €
G75182998 Algaraz	4.234,80 €	2.540,88 €	1.693,92 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>30.913€€</b>	<b>18.547,80 €</b>	<b>12.365,20€</b>

B LERROA: Sormen proiektuak.

Onuraduna	Diruz lagunduko den lana	Diru laguntza 2026	60%	40%
Santiago Mendiola Ayastuy	Oñatiri buruzko argazki liburua	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Ospel taldea	Disko grabaketa eta argitaratzea	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
Felipe Uriarte	"Marmotarena" ipuin ilustratua	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
Hiru Handiak	"Hamaika arrazoi" disko grabaketa	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
Lukene Igartua Egaña	"Erraldoiena" haur liburua	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Lukene Igartua Egaña	"Zapaburuena" haur liburua	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Karmelo Alberdi Onraitia	Disko grabaketa	1.184,62 €	710,77 €	473,85 €
Algaraz Ikuskizun Elkartea	Diskoa: Potx eta Lotx itsasontzian	1.658,46 €	995,08 €	663,38 €
Mila Modu taldea	Disko grabaketa	1.421,54 €	852,92 €	568,62 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>12.087,10 €</b>	<b>7.252,84 €</b>	<b>4.834,26 €</b>

**Bigarrena.**-Ondoren aipatzen diren INTERESDUNEI, beharrezko dokumentazioa eguneratu eta aurkezteko, administrazio izapidea irekitzea, onartzea. Horretarako, (10) hamar eguneko epea irekiko da, jakinarazpen hau argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

A LERROA



**OÑATI**  
dabilen herria

Interesduna	Baldintza
G75156307 Zizenkatzaileak	Zerga betebeharrak (...)
G75007138 OMT	Zerga betebeharrak (...)
G75144972 Txinparta Bertso Eskola	Zerga betebeharrak (...)
G75006999 Lizargarate	Zerga betebeharrak (...)
G72766991 Aeequs	Zerga betebeharrak (...)
G202708996 OGA	Zerga betebeharrak (...)
G75226100 Ganbara Kantu Eskola	Zerga betebeharrak (...)
G75186395 Artixa	Zerga betebeharrak (...)
G75226100 Hots Abesbatza	Zerga betebeharrak (...)

**B LERROA:**

Interesduna	Baldintza
Ganbara Kantu Eskola	Zerga betebeharrak(...)
OGA	Zerga betebeharrak(...)
Burrunba Faktoria Kultur Elkarte	Zerga betebeharrak(...)
Lizargarate Oñatiko Trikitizale Elkarte	Zerga betebeharrak(...)
Hots Abesbatza	Zerga betebeharrak(...)

**Hirugarrena.-** Hamar eguneko epea pasa ondoren, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraituta, kultura Sailak diru laguntza deialdiaren instruktore gisa, eskariak aztertu, eta egindako txostena eta behin-betiko diru laguntza proposamena landuko du, dagokion Organo eskumendunak, diru laguntzak banatzeko behin-betiko esleipen- proposamena egin eta onartu dezan.

**Laugarrena.-** Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du. Jakinarazpena egiaztat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita. Interesdunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa. "

\*\*\*

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrek aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez."

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**

Oñatiko Udala  
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati  
tel: +34 943 78 04 11 • [oñati.eus](http://oñati.eus)



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026ZDKO0008-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)